


Kiroldegiko ikastaroetan izen ematea zabalik dago iaz ibili zirentzat; berrientzat, abuztuaren 20tik aurrera

■ Urte guztiko ikastaroetan izena emateko bazkide egin beharra dago ■ Igeriketa, aerobic-a, karatea eta mantenimentuko gimnasia daude.

KIROLDEGIAN iraila eta urrian hasten dira ikastarorik gehienak eta izen ematea zabalik dago dagoeneko, aurreko urtean ikastaroetan ibili zen jendearentzat. Igeriketa, aerobic-a, karatea eta mantenimentuko gimnasia dira kiroldegiak eskaintzen dituen ikastaroak eta gehienetan ume, gazte eta helduentzako daude.

Uztailaren 1etik abuztuaren 20ra dute apuntatzeko aukera aurreko ikasturtean ikastaroetan ibilitakoek eta abuztuaren 20tik aurrera irekiko da izen ematea lehengo ikasturtean ibili ez zen jendearentzat. Hala ere, badira ikastaro batzuk hilabetekoak edo 4 hilabete eta erdikoak igeriketan; horietan, ikastaroa hasi aurreko hilean apuntatu behar da: errepikatzaileak hilaren 19an eta errepikatzaile ez direnak, 20tik 25era.



Gazte koadrila bat igerilekura sartzeko pronto. Irailean hasiko zaizkie ikastaroak.

Bazkide egitea

Urte guztiko ikastaroetan izena eman nahi duenak derri-gorra du bazkide izatea. Hilabeteko eta lau hilabete eta erdiko igeriketa ikastaroetan, berriz, garestiago izango dute bazkide ez direnek. Urteko bazkide txartelak 105 euro balio ditu 18 urtez gorakoentzat; 66 euro 18 urtez azpikoentzat; eta 160 euro balio ditu txartel familiarrak. Urte erdiko txartelak, berriz, 63 euro 18 urtetik gorakoentzat; 40 euro gazteagoentzat; eta 96 euro familiarrak. Bazkideek erabili litzazkete: igerilekuak, squash libre dagoenean, pistak libre dagoenean, gimnasioa, frontoia libre denean, teniseko pista, eta Astigarraga, Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo kiroldegietan sartzeko aukera ere badute Hernanin bazkide direnek. □

URTEAN ZEHAR KIROLDEGIAK ESKAINTZEN DITUEN IKASTAROAK

IGERIKETA	No iz hasi	No iz bukatu	Egunak	O rdua	P reziõa	IGERIKETA	No iz hasi	No iz bukatu	Egunak	O rdua	P reziõa			
HAURTZOAK	Irailak 1	Uztailak 31	Astelehena, ostegun	12:00-12:45	35,3 euro hilean	HASTERA HELDUAK	Hilabeteko ikastaroak dia, hilerro	Egunero	Egunero	07:30-08:00	42,8-68,5 e*			
			Astearte, ostial	12:00-12:45	35,3 euro hilean					09:30-10:00	42,8-68,5 e*			
			Astelehena, ostegun	16:00-16:45	35,3 euro hilean					19:45-20:35	42,8-68,5 e*			
			Astelehena, ostegun	16:45-17:30	35,3 euro hilean	MANTENIMENDUA	Irailak 1	Ekainak 22	Astelehena, asteazken, ostial	07:30-08:00	209 euro			
			Astearte, ostial	16:00-16:45	35,3 euro hilean				Astearte, ostegun	07:30-08:00	157 euro			
Astearte, ostial	16:45-17:30	35,3 euro hilean	Astelehena, asteazken, ostial	19:45-20:45	157 euro									
JARRAPENA	Irailak 1	Ekainak 22	Asteazkena	16:45-17:30	220,6 euro	AQUA-GIM	Irailak 1	Ekainak 22	Astelehena, asteazken, ostial	09:30-10:00	209 euro			
3-4 URTEKOAK	Urtailak 1	Otsailak 15	Astelehena, ostegun	18:45-19:30	198,45 euro				Astearte, ostegun	09:30-10:00	157 euro			
			Astearte, ostial	18:45-19:30	198,45 euro				Astelehena, asteazken, ostial	19:45-20:35	209 euro			
3-4 URTEKOAK	Otsailak 16	Ekainak 22	Astelehena, ostegun	18:45-19:30	198,45 euro	AEROBIC		No iz hasi	No iz bukatu	Egunak	O rdua	P reziõa		
			Astearte, ostial	18:45-19:30	198,45 euro	Irailak 1	Ekainak 22	Astearte, ostegun	0 rdu asko	209 euro				
HASTERA (5 urtetik go-ra)						Hilabeteko ikastaroak dia, hilerro						Egunero	17:55-18:45	60,2-99,3 e*
UR EKINTZAK	5-6 urte	Irailak 1	Ekainak 22	Astelehena, ostegun	17:00-17:50	157 euro	KARATE		No iz hasi	No iz bukatu	Egunak	O rdua	P reziõa	
				Astearte, ostegun	17:00-17:50	157 euro	Haurrak	Irailak 1	Ekainak 22	Astelehena, asteazken	17:00-17:50	157 euro		
	7-8 urte	Irailak 1	Ekainak 22	Asteazkena	17:00-17:50	78,5 euro	Astelehena, asteazken, ostial	18:40-19:30	209 euro					
				Astearte, ostial	17:00-17:50	157 euro	Astearte, ostegun	17:00-17:50	157 euro					
	9 urtetik go-ra	Irailak 1	Ekainak 22	Ostia	17:00-17:50	78,5 euro	Astelehena, asteazken, ostial	17:50-18:40	209 euro					
Astelehena, asteazken				18:50-19:40	157 euro	Gazteak	Irailak 1	Ekainak 22	Astelehena, asteazken, ostial	18:45-20:00	209 euro			
IGERIKETA ESKOLA	Urtailak 1	Ekainak 22	Ostia	18:50-19:40	78,5 euro	HELDUAK	Irailak 1	Ekainak 22	Astelehena, asteazken, ostial	20:00-21:30	209 euro			
			Astearte, ostegun	18:50-19:40	157 euro				GIMNASIA		No iz hasi	No iz bukatu	Egunak	O rdua
11-14 urte	Urtailak 1	Ekainak 22	Astelehena, asteaz, ostial	18:50-19:40	209 euro	Irailak 1	Ekainak 22	Astearte, ostegun	10:00-11:35	209 euro				
			Astearte, ostegun	17:45-19:00	209 euro	Astearte, ostegun	17:45-19:00	209 euro						
			Astearte, ostegun	19:00-20:35	209 euro	Astearte, ostegun	19:00-20:35	209 euro						

* Hilabeteko kurtsiloetan bazkideak eta ez direnak apunta litezke. Bi prezio daude: bazkideentzat eta ez direnentzat.

GARAYAR AUTOBUSAK

Autobus zerbitzua
Linea erregularrak

Zerbitzu diskrezionalak
(ESKOLARRAK)



Hernani-Aiete-Donostia-Aiete-Hernani
Andoain-Urnieta-Hernani-Donostia-Hernani-Urnieta-Andoain

Jauregi bailara 17 - Tel.: 943 556 658 / 943 556 662
Faxa: 943 331 208 e-maila: mgarayar@facilnet.es
20120 Hernani (Gipuzkoa)

Asesoría
HATOR
Aseguruak

HATOR
Aholkularitza

Fiskala
Laborala
Kontablea
Administratiboa

Kardaberaz 60
Tel.: 943 55 43 12
20120 Hernani

DORRONSORO




OKINDEGIA

Bertan egindako
kalitatezko ogia

J.Dorronsorok Okindegia, S.L

Lizeaga, 7 943 33 36 18 -20120 HERNANI



Imanol 'Paolla' eta 'Txintxua' abere deman, zaldiari azkenetako plazak egin arazten. 65 osatu zituen.

Imanol 'Paolla'ren zaldia onena Martindegin

■ Larunbat gauean ikusmin handia sortu zuen abere demak ■ Atzo jende asko bildu zen ohiturari segiz, San Ferminetako azken egunean.

BUKATU dira San Ferminak Martindegin eta aurtengoak ere gustu ona utzita joan dira. Larunbat gauean jende asko bildu zen abere demara eta Imanol Paollaren zaldiak irabazi zuen, 20 minutuko txandan, 65 plaza egin da. Imanolek *Txintxua* izan zuen lagun. Bigarren, Antton Goardiren zaldia gelditu zen 57 plaza-ekin eta 2 minutu faltan katea eten eta guzti eginda. Konpondu eta denbora bukatzen utzi zien hala ere juezak. Anttonekin Suharri semea atera zen. Hirugarren, Antonio Manixekoaren behorra gelditu zen, 47 plaza eginda.

Atzo herri kirolak

Atzo herri kirolak izan ziren eguerdi partean eta aizkoran Arrospide nagusitu zen, Martindegin preparatu zien lan luzean. Baleri Aranburu eta Joxemari Esnaola bertan izan zituen Angel Arrospidek, baina, fama nondik duen erakutsi zuen. Seina 60 hontzako eta hiruna kana erdiko ebaki behar izan zituzten. Aimar Irigoien harrijasotzaile gazteak, berriz, 21 jasoaldi egin zizkion 100 kiloko harriari, 3 jasoaldi 200 kilokoari eta 4 jasoaldi, esku bakarrekin, 140 kilokoari. Esku bakarrekin azken jasoaldia egitean, lagun bati eskua ematera joan zen Aimar, harria bizkarrean zuela.

Bestalde, bertsolariak, trikitilariak, toka, txinga eta abar ere izan ziren atzo Martindegin eta jendeak ondo erantzun zuen. Festak Trakets taldearen dantzaldiarekin eta kalejiran bukatu ziren. □



KOTXEA SALGAI

OPEL Vectra GTDI salgai. 98ko abendukoa, oso egoera onean. Garajejan egoten da. Interesatuak deitu: **619 46 00 45**



Hernaniko kronikako laguntzaile:

ORAUNE PROMOCIONES

Ehizari buruzko bilera Txantxangorri

TXANTXANGORRIKO bazkideek bilera dute uztailaren 15ean, ehizari buruzko gaien gainean hitz egiteko.

Bilera datorren ostegunetan da, arratsaldeko 19:30etan, Txantxangorri elkartearen bertan. □

Joxan Pulparentzat San Fermin saria, Joxe Mari tabernan

JOXE Mari tabernan egin dute aurten ere San Fermin sortea eta 193 zenbakiarekin, Joxan Pulparentzat izan da lehen saria, bildutakoaren % 50a (590 euro). Bigarren saria Juanito Goiaranek eraman du 504 zenbakiarekin, jasotakoaren

% 30 (354 euro). Hirugarren saria, berriz, Luis Pulo Maestrok erama du 115arekin, % 20a (236 euro).

Aurten 589 zenbaki saldu dira Joxe Marin eta San Fermin bezperan egin zuten sortea, gauerdiko inguruan, tabernan bertan. □

69 odol emaile uztailan

UZTAILEKO odol estrakzioen datuak eman ditu odol emaile elkarteak eta uztailan 69 lagunek eman dute odola

Hernaniko anbulatorioan. Hauetatik 6 dira berriak eta organoak emateko 4 lagunek eman dute izena. □

ATZERA BEGIRATUTA

26 librako izokia harrapatu zuten Añarbeko erriean, 1840 inguruan, ahoz ahoko esanak dioenez

URUMEAK beti izan du izoki toki onaren fama eta bere garaian erriean aurrera ere izoki asko harrapatu izan da, garai bateko egunkarietako kroniketan ikusi daitekeenez. Esaten denez, 1840an harrapatu zuten orain artean inguru hauetan ikusi den izokin haundienetako, Urumea erriean gora, Añarbeko partean. 26 libra edo 15 kilo inguru pisatu omen zituen izokin hark.

Orduan ez zen noski Añarbeko presarik eta ezta orain bidean dauden beste zenbait

presa ere. Bada aspaldiko eskari bat, Orreagako apaiz batek Urumea inguruko udaltxeei egina. Ordu artan, Orreagako monastegiarena omen zen Artikutza eta Urumean izokinei sare eta oztoporik ez jartzeko eskatu zuten, Artikutzan harrapatu ahal izateko.

Bestalde, 1926an uholde izugarriak izan ziren Urumea erriean, eta *Txardia* zelako batek izokin haundia harrapatu omen zuen Goizueta inguruan. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103
- ▶ Alkoholiko anonimo: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087
- ▶ Gaez: Orue Lasarte. Jaizkibel plaza 2 ☎ 943 362652

IRAGARKI MERKEAK

Neska euskalduna behar da goizez etxeko lanak egiteko eta astean 3 arratsaldetan umea zaintzeko. Irailtik aurrera. Interesatuak deitu (21:30etatik aurrera) **943 332756**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,.... **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)**

HAURTZAINDEGIA eta hezkuntza bereziko laguntzaileak, eskola eta zentro publikoetarako lanpostuak. Presta zaituzte. Informazioa dohain: **943 43 41 27**

LABORATEGIKO teknikari, laguntzaileak. Plaza libreak Udaletxe, Aldundia, Eusko Jaurlaritzarako. Informazioa dohain: **943 43 41 27**

SUHILTZAILEAK. Sarrera berriak tokiko, eskualdeetako parkeetara. Soldata, gutxi gorabehera. 1500. Informazioa dohain: **943 43 41 27**

ADMINISTRARIAK. Laguntzaileak nahiz teknikariak. Udaletxetean eta erakunde publikoetan lan egiteko. Deialdiak maiz eta baldintza eskola graduata. Informazioa dohain: **943 43 41 27**

INGURUGIROA. Langile, teknikari eta agenteak Udaletxe, Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritzan lanpostu libreak. Informazioa dohain: **943 43 41 27**

BASOZAINA. 17 postu libre eskaintza. Naturan lan egiteko lanpostua. Informazioa dohain: **943 43 41 27**

GIZARTE LAGUNTZAILEAK. Hurrengo deialdiak Udaletxe ezberdinetan eta Foru Aldundian. Informazioa dohain: **943 43 41 27**

SUKALDARI. Laguntzaileak, sukaldariak. Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritzan lanpostu libreak. Informazioa dohain: **943 43 41 27**